

Txirriki-txarraka



Testua eta irudiak: **Amaia Egidazu Arrube**

Album irudiduna.

Gaiak: elkar zaintza, bizitzako elementu garrantzitsuen identifikazioa, arazoen erlatibizazioa.

Adina: 3 urtetik aurrera.

Nabarmentzekoak: testu errimatua eta egitura metatua, ipuin tradizionalen erreferentziak, umorea, bilaketa jolasa, collage teknika.

IBIC: YBC (Album irudidunak)

Kartoizko azala | 28 x 21,5 cm. | 32 or.

Salneurria: 17,00 €

ISBN: 978-84-9172-458-2

ISBN 978-84-9172-458-2



9 788491 724582


Istori honen ume protagonista bereziki trebea da gauzak galtzen, non eta nola galtzen dituen ez da sekula konturatzen. Gaurkoan, amak enkargu berezi bat eman dio: amama gaixorik dago eta gauza pila bat eraman behar dizkio. Umea tipi-tapa, txirriki-txarraka, badoa amama estu-estu besarkatzeko irrikaz; baina lortuko al du amamaren etxera heltzea bidean ezer garrantzitsurik galdu gabe?

Testuaren egitura errepikakorra eta metagarria da, errimaduna eta jostaria. Ilustrazioak koloretsuak dira eta oso adi begiratu beharko dituzu ibilaldi guztian zehar gertatzen den guztiaz ohartzeko.

Amaia Egidazu Arrube (Durango, 1981)

Amaia Egidazu Arrube berriztarrak umetatik izan du naturarekiko begirunea, eta zaletasun horrek Euskal Herriko Unibertsitatean Biologia ikasketak aukeratzera eraman zuen. Ingurumena eta energia berriztagarrien sektorean lan jarduera desberdinetan aritu ondoren, haurren pedagogiarekiko interesak arlo horretako formakuntzetan murgiltzera bultzatu zuen. Hori dela eta, zenbait urtez haur txikien bidelagun lana egin izan du eskola aktibo batean. Egun, irakurketa bitartekari bezala dihardu ume eta familientzako irakurle taldeak bideratzen, heldu eta umeentzako sormen tailerrak gidatzen ditu eta ipuin kontalaria ere bada. *Dorotea* album ilustratuarekin Etxepare saria jaso zuen. Bere lanen artean beste hauek ere aipatu daitezke: Tamara Chubarovsky-ren errima-sorta eta ipuinen euskarazko itzulpena eta moldalketa, *Poltsikorako poemak* poema ilustratuen bilduma Saroa Bikandirekin batera, *Itsaso gazian* liburuaren itzulpena eta zenbait elkarlan, besteak beste. *Txirriki-txarraka* album ilustratua da bere azkenengo lana.

Egile beraren beste liburu batzuk:



15,00 €

ISBN 978-84-9172-240-3



9 788491 722403

Txirriki-txarraka

